



LARRUAZALPEKO HOLTERRA EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Larruazalpeko Holter bat ezartzea sintomen balizko kausen azterketan sakontzeko egiten da.

Zertan datza prozedura?

2 cm inguruko ebakidura txiki baten ondoren, larruazalaren azpian gailu bat jarriko dizute, normalean bularraren behealdeko ezker aldean. Holterak bihotzaren aktibitatea erregistratuko du automatikoki.

Nola prestatu behar dut probarako?

Ez du prestakuntza berezirik behar.

Non egingo didate inplantea?

Holterra Bihotz Estimulazioko kanpoko-kontsultan ezarriko da, AUOKKetako 3. solairuan.

Nola egingo didate prozedura?

Ohatilan etzango zaituzte, eta oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta inplante-gunea soilik utziko dizute agerian. Eremu horretan anestesia lokala emango dizute ziztada egingo den lekuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozedurak ordubete inguru iraungo du.

Holterra ezarri ondoren, transmisore bat eta sintoma-sakagailu bat emango dizkizute. Monitoreak aukera emango du bere gailua urrutitik berrikusteko. Sintoma-sakagailua erabiliz zure elektrokardiograma erregistratu ahal izango duzu, eta aztertu nahi dituzten eragozpenak hautemango dituzu.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ez da inolako zaintza berezirik behar, baina, ezarpenaren ondorengo egunetan, ondoezak edo molestiak egon daitezke eremuan, baina berez edo parasetamol motako analgesiko leunak hartuta kenduko dira. Sukarrak jota bazaude eta minak arinduko ez balira edo gora egingo balute, ospitaleko Larrialdi Zerbitzura joan beharko duzu.



Zauria zaintzea

Zauria estaltzen duen apositua ez da sendatu, busti edo aldatu behar. Apositua aldatu behar bada, kontsultatu zure erizainarekin.

Puntuak kentzeko, Lehen Mailako Arretako erizainarengana joango zara kontsultan esango dizuten egunean.

Kontuan hartu beharreko beste arreta batzuk:

Ezarpenaren arrazoia zein den, arreta jarri beharko duzu sintomatologia honetan.

ARRITMIEN azterketa	SINKOPE-azterketa
Palpitazioak Zorabioak	Konorte-galtzeak Zorabioak

Sintoma horietakoren bat izanez gero, eskuzko aktibatzailea sakatu beharko duzu. Gailu hori ezarriko dizuten unean emango dizute.

Sintomatologia izateaz gain, gaizki bazaude edo zorabio baten ondorioz erorikoa izan baduzu, sakagailua aktibatzeaz gain:

- **Astelehenetik ostiralera GOIZEAN bada:** Bihotz-estimulazioko kontsultarekin harremanetan jarriko zara, 945 00 75 72 telefono-zenbakira deituz.
- **Arratsaldean, asteburuetan edo jaiegunetan bada:** LARRIALDIETAKO zerbitzura joan beharko duzu.

Holter eramaile gisa identifikatzen duen txartela beti aldean eramatea gomendatzen da. Txartela alta eman aurretik emango dizute.